



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 28
Urtea/Año 2015
Urtarrila/Enero

ESKERRIK ASKO!

Berriro ere apartekoa izan da erakutsi duzuen solidaritatea. III Zuhaitz Solidarioari emandako erantzuna goi-mailakoa izan da. Bihotz-bihotzez eskertu nahi dizuegu egoera larrian dauden pertsonen munduarekin izan duzuen sentsibilitatea; eta Sortazariri, haiek laguntzeko eman diguten aukera.

MUSIKA ESKOLAKO INSTALAZIO BERRIEI EGINDAKO BISITA

Joan diren abenduaren 13 eta 17an, guraso, ikasle heldu eta Musika Eskolako langile talde batek, Eskolak eta Getxo Antzokia Algortan izango dituzten instalazio berriak bisitatu genituen. Datorren urtean bertan izango gara. Eskerrik asko guztioi zuen iradokizunengatik.

BA AL ZENEKIEN?

2014-15 ikasturtean 84 beka eman ditugu guztira; hauetatik, 52 eman zaizkie 65 urtetik gorako ikasleei. Erabilitako zenbatekoa, 15.629,56.-€koa izango da. 182 dira ikasturte honetan laguntza jasoko duten 112 familia ugari dagozkien ikasleak. Laguntzaren zenbatekoa 16.123,26.-€koa izango da.

VII NEGUKO BIDAIA

Datorren urtarrilaren 17an emango diegu hasiera Neguko Bidaia Zikloaren kontzertuei. Zazpigarrena izango da aurtengoa. Berriro ere goi-mailako kontzertuak izango dira eta, ohi bezala, kontzertu-solasaldi formatuan. Zikloa, gitarra eta ahots-bikotea osatzen duten Saitua-Tobalina interpretatzaile handiekin hasiko dugu. Biolina eta akordeoia nahasten dituen oso proposamen erakargarriekin jarraituko dugu: Fetén-Fetén bikotearen errezitaldia. Hirugarren egunean, BostOn Haize-boskotearekin gozatu ahal izango dugu. Laugarren eta bosgarren kontzertuen protagonistak jazz eta rock musika izango dira. Tom Donald Trio eta Lui Young & The Maha Beach taldeen eskutik. Azken kontzertuan, Brahms eta Gaderen musikarekin gozatu ahal izango dugu. Suggia Piano Trio biolin, biolontxelo eta piano-hirukotearen eskutik. Kontzertuak Musika Eskolako entzunaretoan izango dira eta 19:30ean hasiko dira guztiak. Aurtengoan ez dugu gonbidapenik izango. Sarrerak 5 €tan salduko dira, 25 €ko salneurri bereziarekin sei kontzertuetara etorri nahi duzuenentzat. Zentroko ikasleentzat, sarrerak 3 € balioko ditu, 15 €ko salneurri bereziarekin sei kontzertuetarako. Ez itzazue gall

ZORIONAK!

Berriro Gorka Bordegaraiak, abenduko lehen egunetan Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan parte hartu duen gure akordeoi-ikasleak, zilarrezko domina lortu du bere mailan. Zorionak Gorkari eta bere irakasle Rafari, berak ere zerikusirik omen du eta... Bigarren zoriona Eskolako Konbo Txikiarentzat da, abenduaren 21ean eman zuen errezitaldi ederragatik, "Andrés Isasi" abesbatzarentzat, Eskolako bertako tresnen taldeentzat eta joandako jai hauetan kale, egoitza eta lokaletan entzun gaituzten hainbeste pertsona Gabonetaz gozaten lagundu duten ikasle guztientzat.

Hileko egutegia

Urtarrila

al	ar	az	og	or	la	ig
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

■ Jai-egunak

■ Eskolako jarduerak

■ Jarduerak jai-egunean

Agenda Enero

- Urtarrilak 17:** VII Neguko Bidaiaren 1. kontzertua. **Saitua-Tobalina bikotea.** 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 5 €.
- Urtarrilak 19:** Piano-ikasleen errezitaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. 19:15ean. Sarrera librea.
- Urtarrilak 23:** Gitarra-ikasleen errezitaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. 18:30ean. Sarrera librea.
- Urtarrilak 24:** VII Neguko Bidaiaren 2. kontzertua. **Fetén-Fetén.** 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 5 €.
- Urtarrilak 26:** Haize-zurezko tresnen kontzertu didaktikoa. 11:00etan udalerriko ikastetxeentzat, 17:45ean Musika Eskolako ikasleentzat eta gainerako entzuleentzat.
- Urtarrilak 27:** Flauta-ikasleen errezitaldia. Getxo Elkartegiko Erabilera Anitzeko Aretoan. 18:30ean. Sarrera librea.
- Urtarrilak 30:** Gitarra-ikasleen errezitaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. 18:30ean. Sarrera librea.
- Urtarrilak 31:** VII Neguko Bidaiaren 3. kontzertua. **BostOn haize-boskotea.** 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 5 €.